II. ERANSKINA

DESKRIBAPENA

Elgetako Erdi Aroko hiribilduaren eremuak espazio txiki bat hartzen du gaur egungo hirigunean. Mugak hauek ditu: iparraldean San Roke kaleko 1 eta 36 zenbakiak, hegoaldean kale horren 14 zenbakia eta eliza, mendebaldean Artekale kalea eta ekialdean Postigo kalea.

Herrigunea txikia da eta iparralde-egoalde zentzuan orientatutako kale bakar baten inguruan dago egituratuta, San Roke kalearen inguruan hain zuzen. Kale horren alde banatan mehelindun etxez osatutako etxadiak daude.

Etxeak fatxada estu eta sakonera handiko lurzatietan eginak daude gehien bat, zenbaki bakoitiak dituztenak izan ezik, horien lursailak handitu egin baitira berriki egindako aldaketen ondorioz.

Eraikinek, orokorrean, ez dituzte bi solairu baino gehiago; beheko solairua, lehen solairua eta teilatu azpiko solairua daukate gehienek eta harlankaitzezko fabrika eta zurezko egitura, duela gutxi erabat aldatu eta konpondu dituztenak izan ezik (1, 26-30, 34 eta 36 zk.)

ANEXO II

DESCRIPCIÓN

El área en la que se planificó el núcleo medieval de la villa de Elgeta abarca un escaso espacio del casco urbano actual. Presenta como límites al Norte las casas n.º 1 y 36 de la calle San Roque, al Sur la casa N.º 14 de la citada calle y el edificio de la iglesia parroquial y las calles Artekale y Postigo al W. y E. respectivamente.

Se trata de un núcleo de escaso desarrollo, ordenado en base a una única calle, San Roque, orientada N-S., configurada en base a dos manzanas de casas simples y extremas, a uno y otro lado de la citada calle, de casas que comparten medianería.

Las edificaciones se asientan en buena medida sobre solares de fachada estrecha y amplio fondo, menos en la manzana de casas impares, donde el solar ha sido ampliado por transformaciones recientes.

En general se trata de construcciones que no rebasan las dos alturas; de planta baja, primer piso y bajo cubierta en la mayoría de los casos. La fábrica es de mampostería y estructura de madera en la mayoría de las casas, no así en aquellas en las que la sustitución ha sido total en fechas muy recientes (n.º 1, 26-30, 34 y 36).

**Zk-1837**

AGINDUA, 1998ko apirilaren 6koa, Kultura sailburuarena, Elgoibarko Hirigune Historikoaren Esparru Arkeologikoa Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean, Monumentu Multzo izendapenaz Kultura Ondare gisa sartzen duena.

Elgoibarko Esparru Arkeologikoaren balio historikoa eta kultura aldetik duen interesa ikusita eta arlo honetan erabilgarri den lege-arautegian ezarritakoa kontutan hartuz, hots, Konstituzioaren 149.1.28. atala, Autonomia Estatutuaren 10.19. atala eta uztailaren 3ko 7/1990 Legea bera aintzat hartuta, ondasun hori Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko espedienteari hasiera ematea erabaki zuen Kultura sailburuordeak 1998ko urtarrilaren 19ko dataz.

Espediente hori administrazio-bidetik izapidatu ahal izateko, aipatutako 7/1990 Legearen 17 eta 11.3. atalean, eta honekin bat datozen gainerako xe-

**N°-1837**

ORDEN de 6 de abril de 1998, de la Consejera de Cultura, por la que se inscribe la Zona Arqueológica del Casco Histórico de Elgoibar, como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

El 19 de enero de 1998, el Viceconsejero de Cultura, a la vista del interés cultural de la Zona Arqueológica de Elgoibar, fundamentado en su valor histórico y arqueológico, y a tenor de lo dispuesto por la normativa legal aplicable, el artículo 149.1.28 de la Constitución, el artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía y la propia Ley 7/1990, de 3 de julio, resolvió incoar el expediente para su inclusión en el Inventario General de Patrimonio Cultural Vasco, con arreglo a lo que la Ley de Patrimonio Cultural Vasco prescribe.

La tramitación administrativa del referido expediente implicó, de conformidad a lo previsto en los artículos 17 y 11.3 de la mencionada Ley 7/1990 y en

dapenetan ezarritakoari jarraituz, jende guztiak espedientearen berri izan zezan, jendaurrean ikusgai jarri zen, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Elgoibarko Udalari entzuteko izapidetza ere burutuz.

Horrenbestez, legez ezarritako izapidetza guztiak behar bezala beterik, ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Orain arte adierazitako guztia kontuan hartuta; aipatutako Legearen 17. atalak ezarritakoari jarraituta; Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak proposatuta eta Euskal Kultura Ondarearen Zentroko Zerbitzu Teknikoen txostena ikusirik, hau,

ERABAKI DUT:

*Lehenengoa.–* Elgoibarko Hirigune Historikoaren Esparru Arkeologikoa, Monumentu Multzo izendapenaz, Kultura Ondare gisa, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzea.

*Bigarrena.–* Aipatutako Esparru Arkeologikoa Mugatzea I. eranskinean ezarritakoaren arabera eta II.ean agertzen den Deskribapenean oinarrituz.

*Hirugarrena.–* Elgoibarko Hirigune Historikoaren Esparru Arkeologikoa Euskal Kultura Ondareari atxikitako Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko eskaria egitea.

*Laugarrena.–* Elgoibarko Udalari eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza eta Kultura Sailei esparru arkeologiko horretan egiteko diren jarduera eta lan guztietarako, Foru Aldundiaren baimena beharko dela eta baimen hori lortzeko aurretiaz dagokion proiektu arkeologikoa aurkeztu beharko dela jakinaraztea, 7/1990 Legeko 45.5. atalak dioen bezala.

Aipatu proiektuan, kasu bakoitzean burutu beharreko iharduera arkeologikoa zehaztuko da, 7/1990, uztailaren 3ko Euskal Kultura Ondareari Buruzko Legearen 45.2 atalak ezarritakoekin bat etorriz.

Ez da indusketa lanik egin beharrik izango lurpean egindako aldaketa edo obren ondorioz, lur azpiko substratu arkeologikoa galduta dagoela egiaztatzen den lekuetan, baina kasu horietan bakar bakarrik.

*Bosgarrena.–* Elgoibarko Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza eta Kultura Departamentuei eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari eta Lurraldearen Antolaketa, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari agindu honen berri ematea.

*Seigarrena.–* Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Egunkari Ofizialean argitaratzea.

las demás disposiciones concordantes, el sometimiento de dicho expediente al trámite de información pública, durante el cual se concedió audiencia a la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Ayuntamiento de Elgoibar.

Habiéndose dado correcto cumplimiento a los trámites legales establecidos al efecto, no se presentó alegación alguna al respecto.

Es por todo lo que antecede y, a tenor de lo establecido por el artículo 17 de la mencionada Ley, a propuesta del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes y visto el informe de los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural Vasco.

RESUELVO:

*Primero.–* Incluir la Zona Arqueológica del Casco Histórico de Elgoibar, como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

*Segundo.–* Delimitar la Zona Arqueológica afectada conforme a lo establecido en el Anexo I y la Descripción que figura en el Anexo II.

*Tercero.–* Instar la inscripción de la Zona Arqueológica del Casco Histórico de Elgoibar en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, adscrito al Centro de Patrimonio Cultural Vasco.

*Cuarto.–* Hacer saber al Ayuntamiento de Elgoibar, así como a los Departamentos de Urbanismo y de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa, que toda actuación que se haya de ejecutar en la presente Zona Arqueológica debe contar con la autorización de la Diputación Foral, previa realización del correspondiente Proyecto Arqueológico, a tenor de lo dispuesto en el artículo 45.5. de la Ley 7/1990.

En el mencionado proyecto se establecerá el tipo de intervención arqueológica a realizar en cada caso, de acuerdo con las establecidas en el artículo 45.2 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

Se entenderá que la actuación arqueológica no es necesaria, exclusivamente en aquellos elementos en los que se certifique la realización de modificaciones, de obras y de alteraciones del subsuelo que impliquen la eliminación del sustrato arqueológico.

*Quinto.–* Notificar la presente Orden al Ayuntamiento de Elgoibar y a los Departamentos de Urbanismo y de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como al Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco.

*Sexto.–* Publicar la Orden de inclusión en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Administrazio-bidea agortzen duen agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 1998ko apirilaren 6a.

Kultura sailburua,
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

Contra la presente Orden, que pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses, a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 6 de abril de 1998.

La Consejera de Cultura,
M.ª CARMEN GARMENDIA LASA.

I. ERANSKINA / *ANEXO I*




• • • • • Delimitación de la zona arqueológica
Arkeologi-gunearen mugapena

Euskal Kultur Ondarearen Zentrua — Centro de Patrimonio Cultural Vasco

Kultura Saila
Eusko Jaurlaritza

Departamento de Cultura
Gobierno Vasco

| | |
|---|---|
| Lurraldea / Territorio: GIPUZKOA | Planoa / Plano: ELGOIBARKO ARKEOLOGIA GUNEA |
| Udalerria / Municipio: ELGOIBAR | ZONA ARQUEOLÓGICA DEL CASCO HC DE ELGOIBAR. Plano Delimitación |
| Data / Fecha: 1996-7-11 | Eskala / Escala: — Plano zk. / Plano nº: |

II. ERANSKINA

DESKRIBAPENA

Elgoibarko hiribildua Alfontso XI.ak 1346. urtean fundatu zuen eta ibarraren hondoan dago kokatua, Deba ibaiaren ertzeko orube lau batean, ibaiak meandro bat eratzen duen puntuan. Leku estrategikoan dago kokatua, Bizkaiko Juarerriarekin muga egiten baitu.

Erdi Aroan planifikatutako hiribilduak hartzen duen eremuaren mugak hauek dira: ipar-mendebaldean Deba ibaia, hego-ekialdean aurreko aldea San Bartolome kalera duten etxeen atzeko aldea (zenbaki bikoitiak) eta eliza, ipar-ekialdean Alzola edo Kalebarren dorrea eta izen hori duen plaza eta hego-mendebaldean Kalegoen edo Foruen plaza eta parrokieliza.

Hiribilduaren planoa laukizuzena da, trazatu erregularrekoa, planta berriko hirigunea baita, izan ere herritarrak bertara bizitzera joan aurretik planifikatu zen bizitokia. IE-HM zentzuan orientatutako bi kale paraleloren inguruan dago egituratua: Errosario kalea eta San Bartolome kalea. Bi kale horien erdi aldera, eta kaleak elkarzut mozten dituelarik, kantoi estu bat dago eta, horri esker, «murru barruko» komunikazioa erraztu egiten da.

Hiribilduaren barruko espazioa fatxada estu eta sakonera handiko lurzatietan banatua dago. Bertan mehelindun etxeak daude eta, horien bidez, etxadi laukizuzen eta erregularrak egituratzen dira, bakunak alboetan (4) eta bikoitzak barruko aldean (2). Barruko aldeko etxeen fatxadak paraleloak diren bi kaletara ematen dute eta atzeko aldeak elkarri begira dituzte, hodia edo gandola oraindik ere ongi ikusten delarik. Espazio hori argi zortasunerako erabiltzen da eta bertara iristen ziren garai batean etxeko hondakin guztiak.

Kaleak antolatzeko elementu nagusiak muturretan daude; ipar-ekialdean Alzola edo Kalebarren dorrea, eta hego-mendebaldean Olaso dorrea, gaur egun desagertua dagoena (haren lekuan Foruen Plaza edo Kalegoen dago orain). Elementu horien aurrean daude hiribilduan daudenik eta espazio ireki zabalenak, bi kaleak puntu horietan elkartzen baitira, Nafarroa Plaza edo Kalebarren ipar-ekialdean eta aipatutako Kalegoen edo Foruen plaza hego-mendebaldean.

San Bartolome eliza eraikin monumentala eta aipatzeko modukoa da. Erdigunearen albo batean dago, ez baitzen hiribildua planifikatu zenean eraiki, beranduago baizik (XVII. m.), izan ere hirigunea jatorrian «harresi barruko» elizarik gabe planifikatu zen, funtzio hori gaur egun kanposantua den Olasoko San Bartolome monastegiak betetzen baitzuen, nahiz eta aldendua egon.

ANEXO II

DESCRIPCIÓN

La villa de Elgoibar, fundada en 1346 por Alfonso XI, se asienta en el fondo del valle, en terreno llano, a orillas del río Deba, justo en el punto donde su curso describe un meandro. En situación estratégica en cuanto que se trata de la frontera con el vecino Señorío de Bizkaia.

Los límites del área que aquí nos ocupa, en la que se planificó la villa medieval, quedan establecidos al NW. por el curso del río Deba, al SE. por la trasera de las casas cuya fachada sale a la calle San Bartolomé (n.º pares) y el edificio de la iglesia, al NE. por la Torre Alzola o Kalebarren y la plaza de su nombre y al SW. por la plaza de Kalegoen o de los Fueros y la parroquia.

Su plano es rectangular, de trazado regular, dado que se trata de un núcleo creado de nueva planta, planificado previo al asentamiento de la población. Se configura en base a dos calles paralelas, de trazado rectilíneo y orientación NE-SW., las calles del Rosario y San Bartolomé. Ambas cortadas en sentido perpendicular y hacia la mitad de su discurso por un estrecho cantón que facilitará el tránsito «intramuros».

El resto del espacio al interior de la villa quedará parcelada en base a solares de fachada escasa y amplio fondo, donde se levantan casas de villa que comparten medianería. Configuran estas, manzanas de casas rectangulares y regulares, simples en los extremos (4) y dobles al interior (2), con casas cuya fachada da a calles paralelas y su trasera enfrentada, donde todavía se mantiene perfectamente visible el caño, cárcava o albañal, espacio que funcionará como servidumbre de luces y verdadera cloaca donde se evacuaban los residuos domésticos.

Los elementos principales de ordenación de las calles, se disponen en sus extremos, al NE. la torre Alzola o de Kalebarren, y al SW. la Torre de Olaso, hoy desaparecida y en su lugar la plaza de los Fueros o de Kalegoen. Elementos estos, delante de los cuales se encuentran los únicos espacios abiertos más amplios de la villa, resultado de la confluencia de las dos calles en estos puntos, la plaza de Navarra o Kalebarren al NE. y la citada de Kalegoen o los Fueros al SW.

Destaca por monumentalidad el edificio de la iglesia de San Bartolomé, un tanto excéntrico, dado que se instala posteriormente en la villa (s. XVII), siendo esta en origen planificada sin edificio parroquial «intramuros», ya que cumplía estas funciones el monasterio de San Bartolomé de Olaso, hoy cementerio, un tanto alejado del área que nos ocupa.